



EBAZPENA, 2020ko uztailaren 6koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzekoan ere, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu ziren). Halaber, argitara ematen da gaztelaniaren ezagutza-proba egin behar duten izangaien zerrenda ere.

---

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez (2020ko otsailaren 27ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak deialdia egin zen, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Eskabideak betetzeko epea amaitu ondoren, aipatutako deialdiak 4. oinarrian xedatutakoaren arabera, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzekoan ere, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu ziren).

2. artikulua.- Ebazpen hau, bai eta behin-behineko zerrenda ere, interesdunei jakinarazte aldera, Hezkuntza Saileko Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» edo, kasuaren arabera, «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Espezialitate berriak eskuratzeko prozedura» - «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) - «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-langileak/> - «2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» - «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

3. artikulua.- Onartzea gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeko proba egin behar duten izangaien behin-behineko zerrenda.

Aipatutako behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazte aldera, Hezkuntza Saileko Interneteko helbide hauetan argitaratuko da:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» edo, kasuaren arabera, «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Espezialitate berriak eskuratzeko prozedura» - «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa



eta Espezialitatea) - «Berriak: Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/> - «2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» - «Aurreko probak» - «Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea».

4. artikulua.- Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatzen diren gainerako betekizunak beteta dituztela aitortzen zaienik. Deialdiaren 11. oinarriak xedatutakoari jarraiki hautatuko diren izangaiek aurkeztu behar dituzten dokumentuak ikusita egiaztatzen bada interesdunen batek betekizunen bat betetzen ez duela, prozedura honetan parte hartzeak eman ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu izangai horrek.

5. artikulua.- Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute ebazpen honen aurka, hamar egun balioduneko epean, ebazpena argitara eman eta biharamunetik hasita, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango dute zerrendatik kanpo uztea eragin duen akatsa. Halaber, datu pertsonaletan akatsak atzeman dituzten izangaiek akatsak daudela adierazteko aukera izango dute epe horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 6a

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.